

## **GUARDIA-ARABAKO ERRIOXAKO KUADRILLAN OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUETAN ERREFORTZURAKO LAPOSTUA BETETZEKO, GIZARTE LANGILEAREN KONTRATAZIOAREN HAUTAKETA PROZESUAREN OINARRI ERREGULATZAILEAK.**

### **LEHENA.- XEDEA ETA HELBURUA**

Oinarri hauen helburu da langile baten hautaketa prozesua arautzea da, errefortzu lanpostua bete dezan denboraldi baterako, lanaldi osoan, Guardia-Arabako Errioxako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan berriazkoa den adin txikikoen babeserako eta genero biolentziarako duen zerbitzu eremuan. Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillak gizarte zerbitzuen gainezka egiteari kezkarria deritza, egoera honek ondorio onartezinak ekarriko dituelako erabiltzaileentzat; izan ere, gure gizarte egituraren behartsuenak eta ahulenak dira.

Honetaz gain, egoera honek izugarriko estresa eta antsietatea suposatzen die zerbitzuko profesionalei; honek euren lanaren gutxieneko kalitate mailaren kontra egiten duelarik.

Gaur egun espedienteak pilatuz doaz, hitzorduak luzatzen dira eta egoera okertuz doa.

2016-2019 denboraldirako Arabako Foru Aldundiko Gobernu-Kontseituan onartutako Arabako Lurralde Historikoen Gizarte Zerbitzuen Mapa, Arabako Errioxari birzonifikazioa egiten dio, Mahai Interinstituzionalean 2016ko urtarrilaren 13an egindako bileran birzonifikazioa berriak adostu eta onartu ziren ere; beraz, ondorengo antolaketan banatua dago zerbitzua: Errioxa ekialdea, Errioxa zentroa, Errioxa mendebaldea eta Errioxa hegoaldea.

Antolaketa berri honek, Kuadrillan 2009. urtetik zerbitzuan lau gizarte langile kontratatuta izatea aukera eman du; eta beste alde batetik, Entitatearen errefortzurako teknikari berri baten kontratazioa ahalbidetu du.

**Teknikari berriaren funtzioak orain arteko teknikariari laguntza eta errefortzu lanak egitea izango dira, Arabako Errioxako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan egiten direnak, bereziki genero biolentzia eta adin txikikoen babeserako zerbitzuekin erlazionatua dagoen lanarekin, eremu hau baita zerbitzua kolapsatzen ari dena.**

12/2008 abenduaren 5koa den Gizarte Zerbitzuetako Legeak ezartzen duen bezala, udaletako gizarte zerbitzuetako arreta integraleko unitatearen barne dauden Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren sarbide puntua dira jendartearentzako eta hauen funtzio nagusia, jarduten duten lur-eremuan, gizarte zerbitzuen bidezko esku-hartzearekin hobetu daitezkeen beharrian sozialak antzematea eta haietaz arduratzea da, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren instantzia desberdinetara sarbidea koordinatuz eta kudeatuz. Ondorengo funtzio zehatzak betetzen dituzte baita ere:

1. Informazio, balorazio, diagnosi eta orientazio zerbitzua.
2. Etxez-etxeko laguntza zerbitzua.
3. Gizarte-heziketarako esku-hartzea eta laguntza piskosoziala.
4. Zaintzaileentzako sostengu zerbitzua.

5. Lehen mailako arretan zerbitzuetan bete beharreko funtzioak.
6. Bere eremuan,oinarrizko esku-hartze prozedura aplikatzen dela bermatuko du.
7. Gizarte-premien asetzean gerta daitezkeen gabeziak antzeman beharko ditu.
8. Irizpide homogeen eta sistematikoak erabiliz informazioa landu Gizarte Zerbitzuei buruzko Informazioko Euskal Sistemaren markoaren barnean.
9. Genero biolentzia eta adin txikikoen babesak.
10. Garatu daitezkeen edozein funtzio analogo eta berariaz egotzi diezaiokeena.

### **BIGARRENA.- LANPOSTUA. HAUTAKETA TXANDA. HAUTAKETA SISTEMA. LANTOKIA.**

- Lanpostua: Gizarte Langilea. Eskala: Administrazio Berezia. Azpi-eskala: Erdi teknikaria, zenbakia:1, egoera administratiboa: bete gabeko lanpostua, B taldea, 17.maila (Eufaleba), 3.perfila, nahitaezko data gabekoa.
- Obra edo zerbitzu baterako kontratua.
- Obra edo zerbitzua: Oinarrizko Gizarte Zerbitzuei aldi baterako errefortzua egitea, genero biolentzia eta adin txikikoen babeserako eremuan zerbitzuaren arintzea.
- Lanaldi osoa.
- Hautaketa txanda: askea.
- Hautaketa sistema: Lehiaketa-oposaketa.
- Lantokia: lanpostua Arabako Errioxako eskualdean egongo da zentralizatua.

### **HIRUGARRENA.- HAUTAGAIEN BETEBEHARRAK**

- Funtzio publikoko sarbiderako orokorrak.
- Dagozkion eginkizunak normaltasunez betetzea galarazten dion gaixotasun fisikorik edo psikologikorik ez izatea; 13/1982 Legearen, apirilaren 7koa, Ahalmen Urriko Pertsonen Gizarte Integrazioaren aplikazioa ez ahaztuz. Behin hautaketa prozesua gainditua, ahalmen fisikoa eta psikikoa, medikuaren azterketa bidez egiaztatuko da, 8.4 Oinarrian adostutakoa beteko ez balu hautagaiak, eten egingo zen prozesua.
- Gizarte Langintzako Diplomatura edo Graduak titulua izatea. Atzerrian lortutako titulazioen kasuan, homologatuak daudenaren egiaztagarria aurkeztu beharko da.
- B.1, gidatzeko baimena eta kotxea izatea, beharrezkoa baita lanpostuaren funtzioak bete ahal izateko.
- Lanean berehala hasi ahal izatea.
- Funtzio publikoetan lana betetzeko gaitasungabetu egoeran ez aurkitzea, ezta Administrazio Publikoen zerbitzuetatik diziplinazko espediente bidez kanporatua izandakoa ere. Atzeritarren kasuan, Estatuaren Funtzio Publikoan sarrera galarazia ez izatea, diziplinazko zehapen edo zigor penala izateagatik.
- Indarreko araudiaren arabera, ezgaitasun edo bateraezintasunezko inongo

kausa legeletan sartuta ez egotea, araudiak ezartzen duen aukera eskubidea salbuetsita.

Lanpostura aurkezten diren pertsonak, baldintza hauek guztiak bete eta beharko dituzte lanpostura izena emateko epea amaitu baino lehen.

#### **LAUGARRENA.- ESKAEREN AURKEZPENA.**

Hautaketa prozesuan parte hartzeko eskabideak Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillako Presidente jaunari zuzenduko zaizkio, hautagaiak hirugarren oinarrian eskatutako baldintza guztiak betetzen dituela idatziz jaso beharko du hautaketa prozesuan parte hartu ahal izateko.

Instantziak, Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillaren erregistro orokorraren jendaurreko arreta ordutegian aurkeztu beharko dira.

Izena emateko epea 2017ko otsailaren 6an amaituko da.

Eskaerarekin batera curriculum vitae eta bertan alegatutako merezimenduak egiaztatzen duten dokumentuak aurkeztu beharko dira.

#### **BOSGARRENA.- EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEA.**

- Lehendakaria: Guardia-Arabako Errioxako Letradu-Gerentea.
- Eledunak:
  - Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Informazio Bulegoko eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen arduraduna.
  - Arabako Errioxako Kuadrillako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako bi Teknikari titular.
- Idazkaria: Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillako Administraria.

#### **SEIGARRENA.- LEHIAKETA FASEA.**

Aurkezten direnen pertsonak akreditatu eta alegatutako merituak, horrela baloratuko dira:

- OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUETAN LAN-ESPERIENTZIA: sei hilabeteetako lan-esperientzia akreditatuagatik 0,5 puntu. Gehienez: puntu 1.
- LANDA EREMUKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUETAN LAN-ESPERIENTZIA: sei hilabeteetako lan-esperientzia akreditatuagatik 0,5 puntu. Gehienez: puntu 1.
- ADIN TXIKIKOEN BABESERAKO ETA GENERO BIOLENTZIA EREMUKO GIZARTE ZERBITZUETAN LAN-ESPERIENTZIA: sei hilabeteetako lan-esperientzia akreditatuagatik 0,5 puntu. Gehienez: 2 puntu.

Ondorio hauetarako, urtebete 356 egunen batura moduan ulertuko da; sei hilabete 180 egunen batura eta hilabete, 30 egunen batura.

- IKASKETA OSAGARRIAK: gehienez puntu 1. Masterrak, aditu tituluak edo antzekoak: 0,25 puntu, lanpostuarekin zerikusia duen ikastaro

bakoitzagatik.

### **ZAZPIGARRENA.- OPOSIZIO FASEA.**

- a) ARIKETA TEORIKO-PRAKTIKOA.-  
Aurkeztutako pertsonak kontratuan xedean adierazita dauden lanpostuaren funtzioekin erlazionatuta dagoen ariketa praktikoa burutu beharko dute. Gehienezko puntuazioa: 4 puntu.
- b) LAN ELKARRIZKETA.-  
Aurkeztutako pertsonak Epaimahaiko kideekin lan elkarrizketa izango dute. Gehienezko puntuazioa: puntu 1.
- c) EUSKARA EZAGUTZA.-  
1.go HE edo baliokidea izatea: 0,5 puntu.  
2. HE edo baliokidea izatea: puntu 1.  
3.HE edo baliokidea izatea: 2 puntu.

### **ZORTZIGARRENA.- EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEAREN PROPOSAMENA.**

Epaimahai kalifikatzaileak alegatutako eta akreditatutako merituen balorazioa egingo du batetik, eta bestetik, oposizio fasean egindako ariketak puntuatzeari ekingo dio.

Behin hori eginda, lanposturako aukeratutako pertsona eta ordezkoen izen zerrenda puntuen arabera ordena jarraituz egingo da; gero, osoko bilkuran izendapena proposatuko da.

Aurkeztutako pertsonen izen zerrenda eta haien puntuazioa, Kuadrillaren iragarki-oholean eta komunikabideetan argitaratuko da.

### **BEDERATZIGARRENA.- AGIRIEN AURKEZTEA.**

Hautaketa prozesuan aukeratutako pertsonak, bere izendapena ofiziala izan baino lehen, Kuadrillako bulegoetan entregatuta izan beharko ditu deialdira aurkezteko bete behar diren baldintzak egiaztatzeko dokumentuak; ondoren zehazturik daudenak:

- Nortasun agiri originala.
- Diziplinazko espediente bidez, administrazio publikoaren zerbitzutik bereizi ez izanaren zinpeko adierazpena. Baita ezgaitasun edo bateraezintasunezko inongo kausa legeletan sartuta ez egotea adierazten duen agiria ere.
- Gizarte Langintzako Diplomatura edo Gradu Titulu originala.
- Gidabaimen agiri originala.
- Kotxea daukanaren zinpeko adierazpena.
- Alegatutako lan-esperientzia eta curriculum vitaean adierazitako merituen justifikazioa.

Adierazitako epean ez bada aipatutako dokumentazio aurkezten, ezinbesteko justifikaziopean izan ezik, edo azterketaren emaitzak adierazten badu hautagaiak ez dituela lanposturako baldintzak nahikoak betetzen, ez da egingo lanposturako pertsona horren izendapena eta ordezkotzat moduan

dagoenari pasako zaio izendapena.

### **HAMARGARRENA.- JUDISDIKZIOA ESKUDUNA.**

Bide administratiboan adostutakoaren kontra egiteko Administrazioako auzi-errekurtsoaren bitartez izan beharko da, aipatutako Jurisdikzioaren Legeari jarraiki.

Halaber, hautaketa prozesu honen auzi-gaiak, Administrazioako auzi-errekurtsoaren bitartez jasoko dira.

### **HAMAIKAGARRENA.- ARAUBIDE JURIDIKOA**

Langilearen hautaketa prozesua oinarri hauek arabera egingo da. Honez gain, ondorengo lege eta araudiak kontuan hartuko dira:

- 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoarena.
- Apirilaren 2ko 7/1985, Tokiko Sistema arautzen duen Legea eta Errege Dekretua 781/1986, apirilaren 18koa, berrikusi egungo legediaren Testua onartzen Tokiko Gobernu onartu zen.
- Errege Dekretua, 364/1995, martxoaren 10ekoa, Araudi Orokorra Estatuko Administrazio Orokorren sarreran eta lanpostuak betetzeko.

Guardia, 2017ko urtarrilaren 25ean.